



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2008-04-20**

VIURTEA 1.413.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Plazan elkartu ostein, manifestazioa burutu zuten atzo 400 herritar inguruk. HITZA

Ehunka herritar elkartu dira «herriko hezkuntz proiektuaren alde»

IBARRA Udalarri «herritarren hitza errespetatzea» eskatu zien 400 herritar inguruk; etziko udal bilkurara joateko deia luzatu zuten 7



Atzoko dantza saio bateko une bat. N. GARZIA

Herriko kaleak dantzari txikiz beterik, egun osoan zehar

TOLOSA 240 dantzari aritu ziren Udaberrik antolaturiko Dantzari Txiki Egunean 6

Landare Berezien 6. Azoka
Iturraranga Lorategi Botanikoa
AIA IGIBUZKODAI AR. R. ZAR. 26. 04. 27

Landare berezien 6. azoka, 2008ko azararen 26an, 10:00etatik 12:00etara, Iturraranga Lorategi Botanikoa, AIA Igibuzkodaia Ar. R. Zar. 26. 04. 27. Azoka honetan, landare bereziak, azoka bereziak, eta beste landare bereziak ere erakutsiko dira. Azoka honetan, landare bereziak, azoka bereziak, eta beste landare bereziak ere erakutsiko dira.

GIPUZKOA

1. ÑAÑARRI RALLY ESPRINTA

ALEDIA - ORENDAIN - ABALTZISKETA - AMEZKETA

2008ko
APIRILAREN 26AN

EGIAZTAPENAK:
10:00ETATIK
12:00ETARA

LEKUA:
ALEGIAKO
HERRI ESKOLAN

IRTEERA:
15:00ETAN,
ALEGIATIK

ERREPIDEA
MOZTEA:
14:00ETAN

SARI BANAKETA:
AMEZKETAKO PLAZAN

Arurako Ikastola **eraikitzen** **hasi den elkarrekin** **PRIMERAN PASATU GABE**



» Uzturretik

Joxi Imaz

Gaur, hiru paragrafotan, hiru gai. Lehenengoa: etorkinak. XX. mende amaiera eta XXI. mende hasiera honetan, korronte migrazio handiak gertatzen ari dira mundu osoan, herri pobretatik aberatsetara. Eta gure eskualdera ere iristen hasi dira. Afrikatik,

«Putos moros»

Europa Ekialdetik, Latinoamerikatik... Eta batzuk urduritzen hasi dira. Delinkuentzia igo omen da. Lana kenduko omen digute. Gehiegizko alarmismo horren aurrean, ez genituzke gauza batzuk ahaztu behar. Adibidez, nola aberastu zen Europa XV. mendetik aurrera? Beste arrazoi batzuen artean, batez ere herri hauetatik lapurtutako lehengaiei esker. Eta nola mantentzen dugu gure bizitza material maila 2008an? Herri hauetatik lapurtzen jarraitzen dugun lehengaiei esker (petrolio, gasa, janaria, eta abar). Horregatik,

kritika gutxiagorekin eta umiltasun gehiagorekin hartu beharko genituzke.

Bigarren gaia: etxebizitza eta eraikuntza sektorea. Hurrengo urteetarako etxebizitza ugari egiteko planak daude gure eskualdean: 1.000 Tolosan, 600 Ibarra... Hainbeste etxe berri eraiki beharra al dago? Egunero errepikatzen ari dira etxebizitza salmenta jaitzen ari dela. Gainera, lehendabizitza etxebizitza hutsak atera beharko lirake merkatura: Tolosako mila pertsona daude izena emanda Etxebiden, eta Jaurilaritzaren da-

tuen arabera, mila etxe daude hutsik Tolosan. Baina batzuk eraiki eta eraiki jarraitu nahi dute. Ziu-rrenik, arrazoia ez da horrenbeste etxebizitza berriak behar ditugula, baizik eta eraikuntza sektorearen negozio beharrak mantendu behar direla (gure gizarteko industria garrantzitsuenetakoa bihurtu baita azken urteetan. Nola gelditu orain hainbesteko indarra hartu duen bola hori?). Ibarra kasua baratzak lortzen saiatzen ari diren bitartean (jubilatuentzat alokairuan, eskola umeentzat, edo besterik gabe, baratza eduki nahi dutentzat), guk aurkako bidea aukeratu dugu. Asfalto gutxiago eta baratza gehiago!

Bukatzeko, kultura. Ideia ona Leidor zinemarako bonoena. Pelikula interesgarriak (*Juno* eta *La escafandra y la mariposa* adibidez), eta prezio herrikoiak. Horrela jarraitu dezala.

Interneten ere topatu daitezke eskualdeko proiektu erakarriak: begiratu adibidez Musikalergi izeneko bloga (*musikalergi.blogspot.com*). Eta kultura dohain nahi duenak, Kultur Etxe eta liburutegi publikoak erabili ditzala. Bereziki gomendagarriak, Ibarra-koa bezala, interesarekin kudeatzen direnak: liburuak, egunkariak, aldizkariak, komikiak, Internet, musika, zinema... Ze gaztatu mundu hori gustuko dugunontzat!

A Asteko irudia



Guztion ardura dela erakutsiz, Naturaldian

Iragarki laburrak

LANA

■ **Garbitzailea.** Orendainen garbitzailea behar da. Interesatuak dei dezatela 943 65 04 91 telefono zenbakira 19:30etik aurrera.
■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. Interesatuak dei dezatela 685 22 70 58 telefono zenbakira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

TOLOSA ■ Pasa den larunbatean hasi ziren Naturaldia jardunaldiak *Energia, eta ekin!* lelopean. Aurtengo jardunaldien ardatza energia berri-tagarriak dira, antolatzaileek esan bezala, «gure etorkizuna jasagarria izan nahi badugu, gure ohiturak aldatu beharra baitaizkagu».



Hala ardatz hori hartuta, hainbat ekitaldi burutu dituzte. Larunbatean, esaterako, Samaniego eko-eskola bisitatu zuten, Euskal Autonomia Erkidegoan gisa honetako bakarra, eta eguzkiaren indarrarekin sukaldatu daitekeela ere frogatu zuten Roberto Ruiz sukaldari lane-

tan aritu zela. Asteazkenetik hainbat ekitaldi ere izan dira, gaiekin zerikusia duten filmak, hitzaldien edota ikastaroak, esaterako.

Atzoko egitarauan hitzaldia izan zen bi adituren eskutik, Tolosako udaletxean, baina aurretik, ekitaldi bereziena, bi adituei Joaquín Araujo eta Miguel Delibes de Castro naturalistei egin zieten omenaldia izan zen. Zumardirekin eta Naturaldiarekin izan duten parte-hartzea eskertu nahi izan zuten antolatzaileek, eta urte askotan naturaren alde eginiko lana saritu ere bai. EEZEZA / A. IMAZ



Encarna Mejía kolore askorekin jolasten du, eta bere lanek bizitasun handia erakusten dute argiaren aurrean. A. OTERMIN



«Artista ezezagunek ez dute txokorik»

JAVIER GARRO » Tabernaria

Kultura » Encarna Mejía alegiarren margolanak, Tolosako Itaie tabernan, erakusgai dira hilabete honetan.

ARRATE OTERMIN

Inauteri ondoren hasi da Javier Garro (Tolosa, 1957) bere tabernako paretak margolanez janzten. Artistekin hitz egin, eta dagoeneko hitzartuak ditu abuzturainoko erakusketak. Margo lanetan oso trebea ez bada ere, emaztea aritzen omen da margotzen, eta hortatik-edo berak ere oso gustuko du



A. OTERMIN

margolarien mundua. Jende asko sartzen omen da tabernara, erakusketak ikusteko asmoarekin. Lanak, agerian egoteaz gain, salgai ere egon, badaude.

Nondik nora tabernan erakusketak egiteko ideia?

Margotzen duen jende asko ezagutzen dut eta lagun hauetako batek animatu ninduen erakusketen kontu hau martxan jartzera. Horretara, eta aurtengo Inauterien ondoren, tabernan obra txiki bat egin behar nuela aprobetxatuz, artelanei eskainitako lekutxo bat uztea pentsatu nuen. Izan ere, nire ustez, oso leku edo inguru gutxi dago ezezagun diren artisten la-

nentzat. Hau guztiagatik, tabernan erakusketak egitea bururatu zitzaidan.

Noizko antolatu zenuen lehenengo erakusketa?

Tabernan obrak amaitu zirenerako antolatu nuen lehenengoa. Nire asmoa, hilerok tabernara artista baten lanak ekarri, eta artista horri denbora bat eskaintzea da. Orain dagoen hau, bigarren erakusketa da.

Zein izan zen lehena?

Tolosako Ignazio Garziaren lanak egon ziren zintzilik. Gipuzkoako herrien paisaien margoak ziren denak; oso lan politak. Oraingo erakusketak, ez du harekin inola-


ko zerikusirik; oso bestelako margoak dira Encarnarenak.

Nola jartzen zara artistekin harremanetan?

Orain artean, eurak izan dira nigana jo dutenak. Kalem bolo-bolo zabaldu da nonbait, tabernan erakusketak egiteko zegoen asmoa, eta nik ez dut lan handirik egin behar izan artistekin harremanetan jartzeko. Abuzturainoko agenda egina dago dagoeneko.

Bestelako erakusketarik egiteko gogorik?

Bai; margo lanez gain, argazkiak ere oso gustura zintzilikatuko nituzke. Mozanbiken egon den neska batekin hitz egin dut, eta esan didanez, Afrikako argazki oso politak omen ditu. Ea argazkien erakusketak ere martxan jarri eta, gogo, asmo hutsean geratzen ez den. Baina ez zait beste inor etorri, eta argazkiak dituenik bada, erakusketa egitera animatu nahi dut.



Eszerrean, Ibon Azpilikueta argazki irabazlea. Eskuinean, berriz, Gontzal en Goiuriko ur jauziaren argazkia; lehen eta bigarren sailkatuak izan dira, hurrenez hurren.

Ibon Azpilikueta, VII. Hitza Argazki Lehiaketaren irabazlea

Argazki Lehiaketa » Orduñako bainu-etxean asteburu irabazi du; bigarren Aitor Gonzalez izan da eta Iriarte jatetxean afaria eskuratu du.

ERREDAKZIOA

Marokoko paisaia izan da, boto emaleen ustez, VII. Hitza Argazki Lehiaketaren argazkirik ederrena. Egilea, Ibon Azpilikueta alegiaria izan zen, Aste Santuan bertara egin baitzuen bidaia. Bada, lehiaketari esker asteburu pasa ere egin

ahal izango du beste lagun batekin Villabonako Bidaide bidaia agentziaren eskutik. Asteburu Orduñako Aduana bainu-etxean igaroko du, mantenu erdian eta tratamenduak barne (piztina termal zirkuitoa, aroma dutxa, kromoterapia, yogurt kremazko masaia...).

Bigarren sailkatua, berriz, Villabonako Aitor Gonzalez izan da, Euskal Herrian bertan topaturiko irudi eder bati esker, Goiuriko ur jauzia, hain zuzen. Bere saria Berrobiko Iriarte jatetxean bi lagunentzako afari edo bazkaria da.

Datuak

Azpilikueta alegiarraren argazkiak jasotako botoen %37,5 eskuratu du. Gonzalezek bidalitakoak, berriz, %22,5a lortu zuen. Guztira 42 argazki lehiatu dira aurtengo

edizioan eta 40 harpidedunek eman nahi izan dute euren botoa.

Euren argazkiaren azalpena

Ibon Azpilikueta haxe azaldu zuen: «Marokoko Erg Chebbiko dunetan atera nuen argazki hau. Goizeko 9ak aldera ikusi nituen gure atzealdean gamelu hauek. Bi ordulehenago ilargi beteazkutatuz eguzki beroari lekua uzteko. Benetan, Maroko leku zoragarria da eta bertakoek jartzen dute kolorea».

PARTE-HARTZAILE ETA BOTO EMALEEN LANA ESKERTUZ, OPARIAK

Parte-hartzaile eta boto emale guztien artean zozketa egin du HITZAK, euren parte-hartzea eskertuz. Irabazleek aukeran HITZAren materiala jasoko dute. Horretarako egoitzatik pasatzea baino ez dute. Parte-hartzaileen artean irabazlea Mila Otamendi Egiguren tolosarra izan da. Botoa eman dutenen artean, berriz, Sagrario Sorondo Agirrezabalaga irurarra izan da.

Gonzalezek, berriz, haxe esan zigan: «Araba tour egin dugu eta egia esan zoragarriak dira gure bazterrak, esaterako Goiuriko ur jauzi hau».

hazi
nahi duten
pertsonentzat

Gizarte parte-hartzeari buruzko prestakuntza-ikastaroak

Ikastaro guztiak bi orduko hiru saiotan egingo dira, asteartetan, ostazkenetan eta ostegunetan, 19.00etatik 21.00etara.

Donostialdea: maiatzak 6, 7 eta 8
Donostia: Lagartzi Kultur Etxea

Tolosalde: maiatzak 13, 14 eta 15
Tolosa: Antonio M. Labaien Kultur Etxea

Oarsoalde: maiatzak 20, 21 eta 22
Erretxena: Rina Aretza

Buruntzaldea: maiatzak 27, 28 eta 29
Hernani: Ibon Kultur Etxea

Bidasoa-Txingudi: ekainak 3, 4 eta 5
Iruin: Anaita Kultur Zentroa

Debagoiena: ekainak 10, 11 eta 12
Aizua: Kulturate Kultur Etxea

Goierrri: maiatzak 6, 7 eta 8
Ordizia: Barrena Kultur Etxea

Urola Garaia: maiatzak 13, 14 eta 15
Zumarraga: Zela Añel Kultur Etxea

Urola Erdia: maiatzak 20, 21 eta 22
Apetzi: Sindikatu Zaharoko Aretza

Urola Kosta: maiatzak 27, 28 eta 29
Zasueta: Sarri Enea Kultur Etxea

Debabarrena: ekainak 3, 4 eta 5
Eibar: Portales Kultur Etxea

Donostialdea: ekainak 10, 11 eta 12
Donostia: Udal Liburutegiko Ekitaldi Aretza

Izena emateko

Ikastaroak doan dira, eta izena emateko Baketik-ekin harremanetan jartzea baino ez duzu ondorengo bide hauek erabili.

943 25 10 05 partehartu@baketik.org www.baketik.org

Parte hartzen
pertsona eta gizarte moduan hazten gara

Laguntza:

Arretak:

Kolaboratzaile:



Gipuzkoako Foru Aukundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

kultura **publica** berria
Programa de participación cultural de la Urtxun





Udaletxeko plazatik abiatu ondoren, Trianguloan talde ezberdinetan banatu ziren. N. GARZIA



Taldea bat jubilatuen egoitzaren ondoan aritu zen dantzan. N. GARZIA



Beste batzuk frontoiaurrean gelditu ziren eta dantza bat baino gehiago dantzatu zituzten. N. GARZIA



Mutilek ere trebetasuna azaldu zuten atzo Makil-dantzan. N. GARZIA



Jantzi ezberdinak ikusi ahal izan ziren, nahiz eta espartinak berberak izan. N.G.



Iurreamendi Egoitzak, Hirugarren Adineko Pertsonen zainketara dedikatua, eta Tolosan kokatua, honako lanpostua bete nahi du:

ANTOLAKUNTZA ETA GIZA BALIABIDEETAKO TEKNIKARIA

(Erreferentzia: RR.HH.)

Zuzendaritza Orokorraren menpean, Pertsonen Administrazioa gainbegiratu, Giza Baliabideetako politikan parte hartu, lan erlazioen koordinazioa, jardueren ebaluaketa eta formazio planen diseinua, besteak beste, egingo ditu.

Lanpostu honetarako, ezinbestekoa izango da honako ezaugarriak izatea:

- Lizentziatura.
- Giza Baliabideetan formazio gehigarria izatea baloratuko da.
- Antzeko lanpostuetan eskarmentua izatea baloratuko da.
- Euskera: 3. Hizkuntz eskakizuna edo baliokidea.
- Pertsona dinamikoa, ekimenarekin, antolamendu zein talde lanean aritzeko gaitasuna izatea baloratuko da.

Interesatuak, deialdiaren oinarriak jaso eta bertan azaltzen den eskaera orria aurkeztu beharko dute, Iurreamendi Egoitzan, Iruña Etorbidea 6 zenbakian – Tolosan, iragarki hau argitaratu hurrengo egunetik, 20 egun naturaleko epean.

Dantzariak nonahi

Kultura » Goizean udaletxeko plazatik abiatu ondoren, egun guztian zehar Tolosako kaleak alaitu zituzten Dantzari Txikien Egunean.

NAIARA GARZIA

Atzo Tolosako kaleak Euskal Herriko puntu ezberdinetatik etorritako dantzari txikiez bete ziren. Honela, Dantzari Txikien Eguna ospatzeko, Arabako, Iparraldeko, Bizkaiko eta Nafarroako dantzariak izan ziren bertan.

10:00etan hamaiketakoan egin ondoren, 11:30ean denak udaletxeko plazatik abiatu ziren, txistulariak aurretik zituztela eta Triangu-

gulo plazara iritsi ondoren talde ezberdinetan banatu ziren. Orotara, 240 dantzari inguru etorri ziren, eta talde ezberdinetan sakabanatu ondoren, Tolosako hainbat txoko alaitu zituzten.

Aurten hirugarren aldia da Udaberri dantza taldeak Dantzari Txikien Eguna antolatzen duela, eta horretarako Euskal Herriko hainbat txokotako dantzariak gonbidatu zituzten: Gasteizko Eguzki

Lore taldea (Araba), Galdakaoko Andra Mari taldea (Bizkaia), Nafarroako Otsagabiako eta Agoizko dantza taldeak eta Lapurdiko Guria taldea.

Goizez eta arratsaldez

Tolosako kaleetan zehar ibili ondoren, 13:00ak aldera Plaza Berri-iritsi eta handik bazkaltzera joan ziren, batzuk elkarte batera, beste batzuk Udaberriko dantzarien etxeetara.

Festak arratsaldean jarraitu zuten, berriro Plaza Berrian elkartu baitziren dantzatzeko. Gauean helduen txanda iritsi zen eta afaria egin zuten Zerkausion.



400 herritar inguru elkartu ziren atzo Ibarrran «herriko hezkuntz proiektuaren alde» eta Udalari «herriaren hitza» errespetatzeko eskatuz. ASIERIMAZ

400 herritar inguru elkartu dira «herriko hezkuntz proiektuaren alde»

Ibarra » Etzi egingo den udal bilkurara agertzeko deia egin zuten eta 17:00etarako herriko plazan geratu ziren.

ASIERIMAZ

Uzturpe Ikastolak eta hainbat herritarrek elkarretaratzea eta manifestazioa egin zuten atzo Ibarrran, «herriko hezkuntz proiektuaren alde» eta Udalari «herriaren hitza» errespetata dezala eskatzeko.

400 herritar inguru, haurrak barne, 12:00etan plazan bildu ziren, deialdiari babesa emateko asmoz. Lehenik prentsaurrekoa eskaini zuten eta ondoren herriaren

zehar manifestazioa burutu zuten, bidean hainbat herritarrek bat egin zuten plazatik irten zirenekin.

«Herriari hazi, hezi eta bizi»

Herriko plazan Jokin Zugastik, Uzturpe Ikastolako zuzendariak, hartu zuen hitza, antolatzaileen izenean bildutako eskerrak eman ostean, «herriko hezkuntz proiektuaren alde» hitz egin zuen: «Azken 7 urte hauetan Ibarrrako herriari Udal Haur Eskola zerbitzua izan du; bere sorreran Udalerriko alderdi politiko guztien babesa jaso zuen. Orduetik hona, kudeatzaile lanetan, Uzturpe ikastola 0-16 urtetako herritar guztiei irekia izan den Hezkuntz Proiektu bakar bat garatzen ari da».

Proiektu honen helburua zein

izan den azaldu zuen ondoren; «herriko familien beharrei erantzun bat eman nahian eta Ibarrrako haurrak herriari hazi, hezi eta bizi helburua izan da Haur Eskola hau sortzearen oinarria. Proiektu honen garapenean ikastola, familiak eta udala elkar lanean aritu gara».

2008-09 ikasturtean Udalbatzak Hezkuntza Sailaren Partzuergoaren esku izan zuten duela jakinarazi du Haur Eskolaren kudeaketa. Honen aurrean, Jokin Zugastik galdera bat luzatu zuen: «Zergatik aldatu bikain funtzionatzen duen zerbitzu bat?». Horretaz gain, Udal ordezkariak emandako argudioak oinarri sendorik gabekoak iruditzen zaizkiela azaldu zuen Zugastik, «herriarren kezkek ez dituztela argitzen uste

dugu». Amaitzeko Udal ordezkariengana zuzendu zen ikastolako zuzendaria: «Hemen elkartu garen guztiok Ibarrrako udaleko ordezkariak eskatzen diegu, Udal Haur Eskola zerbitzuarekin jarraitzea herri honen etorkizunerako aukera hobea delagabi dugulako eta herri honetako ikastetxe bakkarraren, Uzturpe ikastolaren, biziraupenerako erabakigarria izan daitekeelako».

«Etzi denok bilkura aretora»

Apirilaren 22an, etzi, ohiko bilkura egingo da 18:00etan udaletxean. Bertan Haur Eskolaren afera bozkatu dute Udal ordezkariak. Plazan elkartu zirenek 17:00etan hitzordua jarri zuten etziraiko, «denok bilkura aretora joateko».

Udaberria mahaietan eta ilarra, baba eta patata berria baloratuenak

Azoka » Mahaietan bertako ziza, kanpoko ziza eta onddoa ere ikus zitezkeen udaberriko barazki askorekin bezala.

PABLO ALBERDI

Oso eskaintza zabala izan genuen atzo Tolosako azokan. Udaberriko barazki asko ikusi ahal izan genituen bertan, baina denen artean ilarra, baba eta patata berria nagusi ziren. Hauexek dira udaberriko barazki baloratuenak, eta dagoeneko aukeran daude mahaietan. Ilarra 12 eurotan saldu zen, baba 3 eurotik 5 euro artean zegoen eta patata berria 3 eurotan.

Aipatzekoa ere atzo ikusitako zizak eta onddoak. 30 bat kilo bertako ziza izan ziren salgai 40 eurotan. Kanpo zizari dagokionez, 100 bat kilo aurkitzen ziren, 25 eurotan. Onddo berriz 28 eurotan zegoen eta 40 bat kilo aurkitzen ziren azokan.

Berdura plazan ere izan genituen aukerak. Apaingarriko landare asko, prezio askotan eta tamaina desberdinetan, baratzetarako udarako landare asko ere aurkitzen ziren.

» ATZOKO AZOKA

	Merka.	Gares.
Berdura plaza Landareak		
Alegria	1,00	1,20
Geranioa	2,00	-
Erromeroa	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00
Klabelina	2,80	4
Kalendula	2,50	-
Surfinia	2,40	-
Lobelia	4,50	-

Bertako produktuak Perretxikoak

Ziza	60	35
Onddo	30	-
Fruta		
Matxakana	6,00	-
Urra	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak

Baba	5,00	-
Babarrun zuria	8,00	10,00
Ilarra	12,00	-
Tomatea	2,00	4,00
Porruak	1,00	3,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Kalabaza	1,50	3,00
Zainzuria	16,00	-
Gaztak		
Gazta berria	16,00	-
Behi gazta	7,00	7,50

Produktu ekologikoak

Baratxuria	1,60	6,00
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00
Ahuntz gazta	3,00	-
Mermelada	3,00	3,60

Gutunak

Haur Eskolaren inguruan Udalbatzaren oharra

Udalerrian Udal Haur Eskolari buruz entzundako hainbat esamesen aurrean, Udalbatzak honako argitu nahi du:

1. Ibarrrako Udal Haur Eskola Udalak jarri zuen martxan 2001. urtean, horretarako eraikin berri bat eraiki eta egokitu zuen Ignazio auzoan. 2003. urtean eraikina handitu behar izan zen zegoen eskaera kopurua handia zela eta.

2. Ibarrrako Udalak, dagozkion administrazio izapideen ondoren, Udal Haur Eskolaren kudeaketa-

zerbitzua Uzturpe Ikastolak horretarako bereziki sortutako Sozietate Mugatu bati esleitu zion.

3. Udal Haur Eskolaren kudeaketa-kontratuaren hainbat luzapenen ondoren, datorren 2008ko abuztuaren 31ean amaituko da Uzturpe Haur Eskola S.M.rekin sinatutako kontratua.

4. 2007. urtean, Ibarrrako Udalak Haur Eskolen Partzuergoan sartzeko gonbidapena jaso zuen. Eraikunde hau 2003. urtean sortu zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Euskadiko haur eskola publikoak kudeatzeko.

5. Aukera hau urtebetez aztertu ondoren, Udalak Eusko Jaurlari-

tzaren Hezkuntza Sailaren menpe dagoen Partzuergoa osatzen duten 132 herriekin bat egitea adostu du.

6. Erabaki hau hartzeraz bultzatu gaituzten arrazoiak honakoak dira: Ibarrran bertan hiritar guztiarentzat kalitateko hezkuntza publiko baten sustapena, iraupena eta bermea; orain arte garatutako hezkuntza proiektua jarraitzea eta kudeaketa egoki batek dakartzan gastuei aurre egiteko finantza bermea eta segurtasuna. Eskumena: Udalak ez du eskumenik Hezkuntza gaietan, bere eskumen bakarra ikastetxe publikoen mantenua da. Hezkuntza eta asistentzia gaietan

eskumena benetan duen erakundeari transferitu, kasu honetan Eusko Jaurlaritzari. (Udala ikastetxe publikoen mantenu-gastuak soilik ordaintzera dago behartuta).

7. Partzuergoan sartzeko erabakia ez doa inolaz ere Uzturpe Ikastolaren interes legitimoen kontra, izan ere udala Ibarrran bertan 0-16 hezkuntza eskaintza eta proiektua mantentzen jarraitzen du eta etorkizunean berori mantentzen, hobetzen eta handitzen jarraituko du, bere printzipio nagusienetako bat baita udalerrian *bizitzia eta etorkizuna* bultzatzea sustatzea eta eskaintzea.

Udalbatza. Ibarra.



16°
9°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	13°
HOTZENA	8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Z Zerbitzuak

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 67 60 13.

■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112. **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

Bihar

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.

■ **Leitza.** Plaza, MT. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariari adierazitako esanena eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Joakin eta Maria (Abaltzisketa). Etxi 60 urte ezkondu zinetela. Zorionak eta ondo pasa!



Urte askoan!

Eñaut Gurrutxaga Etxeberria (Tolosa). Bihar 6 urte. Zorionak eta muxuak, Maren eta famili guztiaren partetik.



Zorionak!

Alaine gaur 7 urte eta Loreak bihar 4. Muxu potoloak amatxoren partetik.



Bertako produktuekin denen bistan

VILLABONA • Oria Merkatarien Elkartek moda desfilea antolatzen duen atzo Gurea aretoan. Sarrera dohainik izan zen eta ikusmin handia piztu zuen. Desfilearen helburua «herriko denden produktuak erakustea» zela azaldu zuten antolatzaileek.

Modeloei zegokienez, eskualdeko herritarrek aritu ziren lan horretan. Apaindurak eta makilajerik ez zen falta izan atzokoan Gurea

aretoan. Umore puntua berriz bi aurkezlek jarri zuten, Anjel Alkain eta Mikel Pagadizabalek, hain zuzen ere. Musika Kristina Aranza-

bek eta Leire Berasaluzek osatzen duten Lain taldeak jarri zuen, ikusmira eta umoreari alaitasuna erantsiz. **ASIERIMAZ**

MOONBEAUTY
Edergintza, Ileapaindegia eta Solariuma
Oria, 16 behea • TOLOSA • 943 65 58 37

Maiatzeko **IGANDE GUZTIA IREKITA** jaunartzetarako
Ordua aldeztu aurretik hartuta

IV Izarraitzko mendilerketa
Euskal Herriko kepa • 2008. Maiatzak 11
Izan amara: Apirilaren 14tik 30era arte • www.lagunonakmb.org


txokoa **h**

antzezlanerako
2 sarrera pare zozketan
deitu eta eskuratu

Antigona

Vaiven ekoiztetxeak

Larunbata, apirilak 26
20:30ean • Tolosako Leidorren



HITZAren harpidedunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: **943 65 56 95**